



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2016ko ABENDUAREN 19koa, GRADUONDOKO IKASKETEN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO BI LANGILE AUKERATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKO DENA. BI LANGILE HORIEK PROPOSATUKO ZAIZKIO COMPOSTELA UNIBERTSITATE TALDEARI, STELLA MUGIKORTASUN PROGRAMAREN 2017ko DEIALDIAN PARTE HARTZEKO IZANGAI GISA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Compostela Unibertsitate Taldeko (CGU) kidea da. CGU irabazi asmorik gabe elkartea da, eta bere helburua da lankidetzeta eta elkarrizketa sustatzea goi mailako hezkuntzarekin zerikusia daukaten esparru guztietan. Galiziako Universidad Santiago de Compostela-ren ekimenez sortu zen, eta gaur egun mundu osoko 70 kide baino gehiago dauzka.

CGU taldeak urtero egiten duen ekimenetako bat Stella programa da, taldean dauden unibertsitateen arteko harremanak sendotze aldera. Programak laneko bisitak egiteko aukera eskaintzen die administrazio eta zerbitzueta langileei (AZP), CGU taldeko kidea den beste unibertsitate bateko zerbitzu homologora joan daitezen. Halaber, nahiz eta eskaintzen diren plazen zerrendan Europako tokiak agertzen diren, UPV/EHUren kasuan bakarrik eskaintzen dira beste kontinenteetakoak.

UPV/EHUK uste du oso interesgarria dela AZPko langileentzat Stella programan parte hartzeko aukera izatea, harreman berriak hasteko beste kontinenteetako unibertsitateekin eta esperientzia horretatik ikasteko. Ez da ahaztu behar unibertsitateak berezko duela nazioartekotzea, eta bere kalitatea hobetzen laguntzen duela.

Horregatik, UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak deialdi hau egitea erabaki du, CGUren eta errektoreordetzaren beraren finantziazioaz.

Adierazitakoaren ildoan, eta kontuan izanda kreditua egon badagoela, eman dizkidaten eskumenen babesean, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea eta argitara ematea UPV/EHUko AZPkoen bi langile aukeratze deialdiaren oinarriak. Bi langile horiek proposatuko zaizkio CGU taldeari, Stella mugikortasun programaren 2017ko deialdian parte hartzeko izangai gisa.

Bigarrena.- Onartzea 330,00 eurorainoko gastua parte hartzaile bakoitzarentzat, errektoreordetzaren aurrekontuaren kargura, bidaia gastuetarako eta jatorduetarako. Bestetik, CGU taldeak 1000,00 euro ematen dizkio parte hartzaile bakoitzari, bidaia gastuetarako eta jatorduetarako.



Ez bada agortzen Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak deialdi honetarako gordetako dirua (660,00 €) izangaiak aukeratu eta justifikatutako gastuak ordaintzeko unean, soberakina erabiliko da UPV/EHUn nazioartekotzea sustatzea helburu duten beste ekintza batzuetarako.

Hirugarrena.- Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen kontra egiteko ondoko bide hauek erabili ahal izango dira, baina inola ere ez aldi berean:

- a) Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, erabakia hiru campusetako iragarki oholetan argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko errekurtso hori jarri gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik eman ezean, errekurtsoa ezetsitzat jo beharko da. Horrela gertatuz gero, auzibidera jotzeko aukera egongo da, b) letran azaltzen den legez. Errekurtsoa ezetsitzat joa izan dela ulertuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsitzat jo eta biharamunetik kontatzen hasita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 116. eta 117. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).
- b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 8.3 eta 46. artikulua).

Ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri, harik eta jarritako berraztertze errekurtsoa espresuki ebazten den arte edo ustez gaitzetsi arte.

OINARRIAK:

1.- Deialdiaren helburua.

Deialdiaren helburua UPV/EHUko AZPkoen bi langile aukeratzea da, eta ondoren langile horiek proposatzea CGU taldeari, Stella mugikortasun programaren 2017ko deialdian parte hartzeko izangai gisa. Deialdian parte hartuko duten AZPko langileen azken hautaketa CGUk egingo du.

2.- Programaren azalpena.

Unibertsitate bakoitzak, gehienez ere, AZPko langile bi proposatu ahal dizkio CGUri. UPV/EHUri azkenean onartuko zaizkion mugikortasunen kopurua (bat edo bi) CGUren Hautaketa Batzordeak erabakiko du.

Mugikortasunak aste baterako izango dira, 2017ko martxoaren 1a eta abenduaren 15a bitartean, eta errespetatu egingo da beste unibertsitatearekin hitzartutakoa datei buruz.

Laguntza ekonomikoen ezaugarriak:



- a) STELLA programak 1000,00 euroko laguntza ematen du bidaia gastuetarako eta jatorduetarako.
- b) Ostatuaz atzerriko unibertsitatea arduratzen da. Normalean, unibertsitate horren egoitzetan hartzen du ostatu bisita profesionala egiten ari den AZPko langileak.
- c) Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak 330,00 eurorainoko laguntza ematen du, a) puntuan aipatutako diru laguntza gainditzen duten gastuetarako.

3.- Eskaintzen diren tokiak

Eskaintzen diren tokiak UPV/EHUren webgunean daude ikusgai: Nazioarteko Harremanak / Administrazio eta zerbitzuetao langileak / STELLA mugikortasun programa.

4.- Interesatuak bete beharreko baldintzak.

Deialdian parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira nahitaez:

- a) UPV/EHUko langile izatea, etenik gabe, 2016ko irailaren 19tik 2017ko abenduaren 15era¹ arte, behintzat.
- b) Aukeratzen den tokian egiten den lanaren antzekoa egiten den lanpostu batean aritzea.
- c) Aukeratzen den zerbitzuan erabiltzen den hizkuntzan maila altua izatea.
- d) UPV/EHUko kasuan kasuko zerbitzuko buruaren aldeko txostena izatea.
- e) Onartzea Stella programako Hautaketa Batzordeak mugikortasunak banatzeko erabiliko duen irizpidea.
- f) Stella programako epeak eta oinarriak errespetatzea. Informazio gehiago esteka honetan:

http://revUPistas.usc.es/export/sites/default/gcompostela/en/descargas/STELLA_FOR_STAFF_-_Handbook_of_guidelines_for_call_2017.pdf

5.- Eskariak.

Eskariak indibidualak izango dira. Pertsona bakoitzak eskari bakarra aurkez dezake. Interesatuak honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Eskari orri ofiziala, behar bezala beteta eta eskatzaileak sinatua; bertan adieraziko dituzte beste kontinenteetan eskainitako tokien artetik aukeratutako hirurak, lehentasun hurrenkeran. Hiru toki horiek UPV/EHU betetzen duen lanpostuaren parekoak izan behar dira. Ez badira aurkitu eskatzailearen parekoak diren hiru toki, hala adierazi beharko da beren-beregi eskari orrian.

¹ UPV/EHUri atxikitako ikastegietako AZPko langileek ere parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, kasuan kasuko ikastegia UPV/EHUri atxikitzeko hitzarmenean zehaztutakoaz bat.



- b) Eskariaren aldeko txostena, interesatuak lan egiten duen ikastegiko edo zerbitzuko arduradunak egina, eta mugikortasuna baimentzen duen pertsonak sinatua.
- c) Hizkuntzaren jakite maila egiaztatzen duen agiri ofiziala, aukeratu den zerbitzuko hizkuntza gaztelania ez den kasuetan.

6.- Eskariak aurkezteko epea eta era.

Eskariak 2017ko urtarrilaren 23ra arte aurkez daitezke.

Eskariak Erregistro Orokorren edozein bulegotan aurkeztuko dira, Stella programaren 2017ko deialdirako direla aipatuta, eta UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari zuzenduko zaizkio (Nazioarteko Harremanen bulegoa, Ignacio M^a Barriola zentroa, 1. solairua, Elhuyar plaza 1 - 20018 Donostia).

Eskaria Erregistro Orokorrean aurkezteaz gain, **eskatzaileak eskari osoa bidali beharko du eskaneatuta, helbide elektroniko honetara: projects.international@ehu.eus**

7.- Balorazio irizpideak.

Ezinbestekoa izango da eskatzailearen lanpostuaren eta aukeratutako zerbitzuak eskaintzen duen plazaren artean antzekotasuna egotea. Egokitasun maila kontuan hartu ahal izango da. Gainera, aukeratutako zerbitzuan ez bada egiten lan gaztelaniaz, eskatzaileak egiaztatu beharko du jakite maila altua duela zerbitzuan erabiltzen den hizkuntzan. Lehentasuna izango dute maila onena dutenek.

Bi baino gehiago izanez gero aukeratutako zerbitzuarekiko egokitasuna eta zerbitzuko hizkuntzaren jakite maila altua duten interesatuak, ondoren aipatzen diren irizpideak erabiliko dira, hurrenkera honetan:

1.- Parte hartu ez izana Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak gestionatzen duen programa honetan edo beste batzuetan (lehenik eta behin, lehentasun txikiagoa zenbat eta denbora gutxiago pasatu izan parte hartu zenetik; eta bigarrenez, lehentasun txikiagoa zenbat eta mugikortasun programa gehiagotan parte hartu izan azken bost urteetan).

2.- Berdinketak jarraituko balu, mugikortasun programa honen edo beste batzuen bidez beste unibertsitate batzuetako langileak hartu dituen edo hartzeko prest dagoela jakinarazi duen zerbitzuko eskatzaileek izango lukete lehentasuna.

3.- Hala ere, berdinketak jarraituko balu, kontuan hartuko lirateke UPV/EHUk eta aukeratutako tokiak aurretik dituzten harremanak eta Graduondoko Ikasketen

eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren lehentasun estrategikoak.

4.- Berdinketak oraindik ere jarraituko balu, UPV/EHU lanean denbora gehien daraman pertsonak izango luke lehentasuna.

8.-Balorazio Batzordea, lehen hautaketa eta azken hautaketa.

Jasotako eskariak aztertuko dituen Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute: UPV/EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak, batzordeko buru izango dena; Nazioarteko Harremanen bulegoko zerbitzuko buruak eta Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzako teknikari batek, batzordekideak izango direnak. Errektoreordetzako teknikaria, batzordekide izateaz gain, idazkaria izango da. Batzorde horrek aukeratuko ditu bi izangai, ondoren CGUri proposatuko zaizkionak.

Balorazio Batzordeak behin aukeratuta UPV/EHUK CGUri proposatuko dizkion bi izangaiak, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak zerrenda hori bidaliko du Stella programako Hautaketa Batzordera.

Stella programako Hautaketa Batzordeak egingo du mugikortasunean parte hartuko duten pertsonen azken hautaketa. Batzorde horrek Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzara bidaliko ditu emaitzak, eta errektoreordetzak jakinaren gainean jarriko ditu proposatuak izan diren pertsonak.

9.- Onuradunaren betebeharrak.

STELLA mugikortasun baten onuradunek honako hauek egin beharko dituzte:

- a) Laguntza emateko hautaketa prozesuan kontuan hartua izan den baldintzaren bat aldatuz gero, aldaketaren berri eman beharko diote errektoreordetzari.
- b) Bidaia egin aurretik, aseguru bat kontratatatu beharko dute istripuetarako, gastu medikoetarako, lekualdatze medikorako eta aberriratzeko; eta aseguru horren kopia bat bidaliko dute projects.international@ehu.eus helbidera. Bidaia kontratatzerakoan nahitaez kontratatatu beharko da aipatutako estaldurak izango dituen aseguru.

Jon-etorria kontratatzeko aukeratzen den bidaia agentzia UPV/EHUko Zerbitzu Orokorren webgunean (<http://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/bidaia-agentzia>) zehaztutako enpresa bat izango da nahitaez. Nazioarteko joan-etorrien kasuan hiru agentziei eskatu beharko diete aurrekontua, zerbitzu orokorrek horretarako daukaten eskari orria erabilita. Erantzun azkarrena edo baldintza onenak eskaintzen dituen aukeratuko da.

- c) Laneko bisita egin beharko dute beste unibertsitatearekin hitzartutako epean.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

- d) Mugikortasuna egin ondoren parte hartzaileek izangaiaren txostena (Candidate Report Form) bidali beharko dute, eskaneatuta, projects.international@ehu.eus helbidera. Halaber, jatorrizko fakturak eta gastuen likidazio orria bidali behar dituzte helbide honetara:

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza

Ignacio M^a Barriola zentroa – 1. solairua

Nazioarteko Harremanen bulegoa

STELLA PROGRAMA

Elhuyar plaza, 1

20018 Donostia (Gipuzkoa)

- e) Etorkizuneko deialdietan ikastegian edo zerbitzuan AZPko langile homologo bat hartzeko prest egotea. Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak udazkenean egin ohi du horretarako deialdia.
- f) Stella programako oinarri guztiak errespetatzea.

10.- Betebeharrak gainbegiratzea eta betebeharrak ez betetzea

Deialdiko oinarriak eta/edo epeak ez betetzeak eragin dezake emandako laguntza atzera botatzea, etetea edo baliogabetzea eta jasotako diru kopurua itzuli behar izatea. Ondorio berberak eragin ditzake datuak ezkutatzek, edo datu horiek aldatu zein manipulatzek.

Nazioarteko Harremanen bulegoak beharrezko ikusten dituen dokumentu guztiak eskatu ahal izango dizkie bai parte hartzaileei bai atzerriko unibertsitateei, mugikortasuna deialdiaren helburuaren funtsaren arabera izan dela egiaztatzeko.

CGUk aukeratutako pertsonaren batek azkenean ez badu egiten mugikortasuna, eta Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak ez baditu onesten interesatuak emandako arrazoiak, pertsona horrek ezingo du hartu parte Stella programaren hurrengo deialdian.

Leioa, 2016ko abenduaren 19

Nekane Balluerka Lasa

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea